

NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

BERTSOLARIAK

Igaro berriak ditugu Doneztebe, Almandoz, Ernatzu eta Arizkun-go bestak. Arizkunderrek Sanjuanak, Almandoztarrek Besta Berri eta Ernatzu eta Doneztebe Sanpedroak.

Beti bezala josteta aunitz eta dibersioa izan dituzte, nola pilota partidak, dantzariak, eta beste zenbait ikuskizun. Bertsolariak bi herrietan izan ditugu, Erratzun eta Donezteben. Erratzuko herrian Uztailaren leñbiziko egunean ari izanak ditugu Xalbador eta Mattin ospe haundiko bertsolariak eta iendeak aunitz maite dituenak. Hiru ordu laurden iraun zuen hoken kantaldiak eta entzuleek ongi dastatu ere bertsoak zaukaten mamia. Donezteben eta egun berean aritu ziren Agirre eta Lazkano azpeitarr bertsolari famatuak. Egund hartan Doneztebe-ko herrian euskalfesta bat antolatu zuten bereharian ahar-ikoa, Soka-Tira, Aizkolariak eta Soñulari famatu batzuk ere ari izanak direlarik.

Bertsolariek beti badute arrakasta eta holaekotan jendea bozkarioz beteten da.

Agertu behar ditut Xalbador eta Mattin-en arteko bertsaldi bat Elizondoren iriatze frontoian 1969-VII-20-an kantatua eta gai gaur zutelarik:

Alta-Semeak dira eta aunitz aldiz gertatzen dena, Aitak dirua egin eta semeak jan. XALBADOR AITA eta MATTIN SEMEA.

XALBADOR:

Semea zer den ikasteko nik
Onenik izan dut jasta,
aurrerat doa bere hartan ta
nik ezin eman arrasta;
kusi guziak erosi behar
dena dantza eta beste,
gure etxeko modua hau da
nik egin da hunek gasta.

MATTIN:

Orra nola den jende maitiak
zahar horien gradua,
beste gauzarik ez dute maite
bakarrik dirua,
gazteiek berriz ez dute nahi,
zahar hoiengulua,
diruarekin nahigodu dugu
guk kurritu mundua.

XALBADOR:

Bai gastatzale segurrak dira
bainan ez langile finak,
aita ta seme asko ikusten
dira egun ezberdinak,
diruarentzat errespeto ez
goza beren atseginak,
beretik eginik ez daukate ta
gastatu bestek eginak.

MATTIN:

Nik aspalditik kurritzen ditut
zahar horien etxeak,
eta berdinak ikusten ditut
batzuek eta bertzeak,
diru iteko hortxe dagozi
gehienak erdi goseak,
bertzela bizi nahiak dira
gaurko eguneko gazteak.

XALBADOR:

Gaurko gazteak urguluz bete
ari direla abiltzen,
mundu guziak ikusten ditu
zer mudutan derabiltzen,

gasta bakarrik eta horkurri
ta ez badezue biltzen,
zure semeak gostako zaito
zu bezala erabiltzen.

MATTIN:

Aita maitea zure erranik
nik ezut nahi sinetsi,
eta hortarako nabila beti
zure erranetik igesi,
baserri ona daukagu eta
maxina berriak erosi,
zuk baino aiso lana eginez
semaik nai baitu bizi.

XALBADOR:

Guk ere lehen landu ditugu
pentzeak eta alorak,
ta egun ez daukagu damurik
ibilirik lan gogorak,
bainan zuek hor asmo horrekin
gehienetan moxkorak,
ta gero zeinek pagatukotu
tresnetan zuk egin zorrak?

MATTIN:

Bein ere enaiz akort ibiltzen
ni hoietan aitarekin,
hunek dirurik ez balin badu
berak ez daki zer egin,
sema ezta batere lotsa
tres nan egin zorrakin,
tresnan hura pagaturu du
beraikin ein lanarekin.

XALBADOR:

Zenbait gisetan lan egitea
ez genduke guk makurrik,
baina semeak ez du ikusten
gaur beste bide laburrik,
dizu: Tresnak erositatu ta
biziko gira gu urrik i-
bainan berak ez du nai unkitu
ez traktor ta ez aitzurrik.

MATTIN:

Zuk enauzala ni konprenitzen
hauze da gure makurra,
gaurko gazteak maite baititu
motorra eta trakturra,
hau berriz beti hermetxe dago
dirudun gogo-laburra,
nik sasira botako ditut
gaur sega eta aitzurra.

XALBADOR:

Segarekin ta aitzurraekin
lan egiten ginueno,
zorrik ez ginuen nehon ta
osasuna ere sano,
naikoa esana dautut bainan
hau ere entzun oraino,
dirua gastatzen aiseago da
metara bilzea baino.

MATTIN:

Burua gogortu zaito aitari
orai semeak sinesteko,
nik beti hauet erraten diot
hoiek gogotik uzteko,
azkenian hauxe erran behar diot
hoiekin konprenitzeko,
hau beti pobre biziko dela
gero aberats hiltzeko.

INDARKERIA EDO BIOLENTZIAZ

Inprenta kontuan, zorrigaiz-
toko naiz, hots, ene idazti-
foak argitara ematen. Alde
horretatik, kukuak gutitan zu-
zen jo ohi du nerretzat. Ho-
relakoxea izan ohi da euska-
raz ari garenon putia! Eta
idatz gabe ezin egon!

Irakurle zuhurrak, ordea,
ez bitzaizkigu egotz, ez bizka-
riera papereko makur denak.
Batez ere, eguneroko edo pe-
rodikukoak. Ez, otol!

Aitzin-solas honez, igaro na-
di gaurko berriketara.

Indarkeria dut azter-gai. Bio-
lentsia. Ezin eta sakonagoko
gia, ezin eta egunekoagoa.
Esku trebe baten beha-
rean naiz, ordea, hain oian
biltzean. Esku hori badut,
izan.

L. Mitxelena jaunarena. Be-
reriz hautatua, gainera. Izan
ere, gizon jakintsu honen cu-
riculum vitae ezagutzea as-
ki, indarkeria es p a r r u a n
(c a m p o) beronen kontse-
luak urregorrikotzat jotzeko.
Bada, «zenbait urtez, behin
eta birritan, ez nuen etxe-
telaparen ardurarik izan, eska-
ti baino oparoago eskalini bait
zidaten» dioenak, —garzelaz
egin zioten esku-ikusiz, ale-
ga—, kontseilu emateko in-
dar badu, Batez ere, beste
hau gaineratzen duenean: «Ez
naiz, gainera, Unamunok hain
gogoko zituen striptease saio
hien aldeko izan sekula bi-
zian».

Hona, bada, bonbak leher-
tuaz zuzentatua egin uste
dutenai, «Azken ordukoak»
izeneko idazti bikainean, Mi-
xelena jaunak esaten diena.
Pasartearen trinkotasuna
(densidad) arintzearen jarri
diren parentesi artekoak, ni-
reak dire.

«Karismadunen artean bizi
dierarik beti (biolentziaren al-
dekoak), karisma apur re n
bet lortu nahi lukete, nondik
eco handik. Ebanjelioa irakurri
ez badute ere, badakite, ze-
retakoari ez ezen, lurreko
eresumari (reino) ere «bor-
ta egiten zaitola, eta keixuek
(volentos, terroristas) harra-
patzen dutela hura».

Alderdiak, taldeak eta tal-
detxoak, mordoek eta mor-
doxkek-hobeki esan, alderdi,
talde, taldetxo, mordo eta
mordoxken burizagi nahiko
(aspirantes) eta ustekoek-bi-
de erraza aurkitu dute gure
artean. Sinai berrian ikasi du-
ten agindua bakarra, hau da
xelebrekeria, ez da donostiar
alaiek jaietan kantatzen zuten
harako hura baizik (eta txan-
txetan ari zirelakoan kantat-
zen zuten axolabake haiek!):
Ni naiz kapitana pilotu (bis)
Niri behar zait obeditu
obeditu.

Ni, behinik -behin, zenbait
gauzaren alde eta zenbait
gauzaren kontra agertu nint-
zen gaztetan, eta berorien al-

de eta kontra naiz orain, ge-
ro eta gogorkiago, ikusi ditu-
danak ikusi ditudalako. For-
ma soilak (gizarteko puras
formas) ez ditut arbutatzen
Zer da gizalegea bera, funt-
sez (en el fondo), axaleko
itxuraz gainera? Halaz guztiz,
ez gara gizartean bizi gizale-
geari eskerrak baizik. Bortxa
itsua, gainera, hutsala eta ila-
na (efimera) iruditzen zait.

Ez jakina, gizaki bakoitzaren
bizitze neuriz, neurtzen badu-
gu; bai, herrien bizi astiro
aldatzen duen erlojuari baga-
gozki. Eta nik ez dut ezereen
eta inoren buruzagi izateko
gogorik. Izan banu ere, goga-
turik nengoke jadanik.

Besteleku batetan agertu-
ko dutan lantxoan, zabalduko
da gehixeago berau.

«PREMIN IXURKO».


OLERKI SARIKETA EUSEBIO MARIA AZKUEREN OROITZAPENEZ (1873 - 1973)

Eusebio Maria Azkue olerkariaren, mendeurrena gogo-
ratuz, Euskaltzaindiak olerki sariaketa bat antolatzen du, bi-
kaiko Aurrezki Kutxaren laguntzaz.

ONARRIAK:

1. Euskera. Euskaltzaindiak Arantzazuko Batzarrean (1968) gomendatuko erregelen arabera (ikus «Euskera» XIII, 250 orrialde, Bilbo 1968).
2. Gaia: Olerkia.
3. Itzulpenak ez dira onartzen. Argitaragabea behar du izan, eta egilearen beraren lana.
4. Luzeera: gutienez 200 lerro, makinaz idatzia, orrien aurrekaldean bakarrik, bikoizkakoa.
5. Saria: 25.000 pezeta. Ezin zatikatzeko.
6. Saria gabe utzi daiteke, mahainak hala epaituko balu.
7. Sarietara bialtzen diren lanen hirur aldai Euskaltzaindiaren etxea igor bidez (Academia de la Lengua Vasca, Ribera, 6, Bilbao-5). Epea: 1973ko Abuztuaren 26a. Lema batekin izenpetuak, eta lemaaren giltza estaldua, lanarekin batera bidali.
8. Epai-mahaina Euskaltzaindiak izendatuko du.
9. Mahaiakoe literatur baliok hartuko difuzte kontuan epai ematerakoan.
10. Saria, Urriaren 31n, Aurrezki, Kutxen egunean jakinaraziko da, Bizkaiko Aurrezki Kutxak ospatuko duen jaian, eta Azaroren 11n, lekition emango da, Eusebio Maria Azkue-
ren oroitzapenez egingo diren ospakizunetan.
11. Hemen jarraigabeko itulurik sortuko balitz, Epai mahainak erabakiko du. Erabaki horren kontra inora jotzerik ez dago.

Udako Euskal Unibersidadea EGUNEROTAKO GAIK



Abuztuaren 29-an. Asteazkena.

- 9'tan: L. VILLASANTE: literatura.
10'tan: J. L. TXILLARDEGI: matematika irakaskintza.
11'tan: X. IRIGARAY: laborantza.
21'tan: J. M. BARANDIARAN: antropologia.

Abuztuaren 30-an. Osteguna.

- 9'tan: ETXEBARRIA: fisika irakaskintza.
10'tan: A. IRIGOYEN: linguistika.
11'tan: J. L. LIZUNDIA: geografia.
21'tan: L. MITXELENA: linguistika.

Abuztuaren 31-an. Ostirala.

- 9'tan: A. LERXUNDI: pedagogia.
10'tan: J. M. BARANDIARAN: antropologia.
11'tan: L. VILLASANTE: literatura.
21'tan: X. IRIGARAY: laborantza.

Irailaren 1-an. Larunbata.

- 9'tan: J. L. LIZUNDIA: geografia.
10'tan: M. MOURGIAIT: linguistika.
11'tan: A. IRIGOYEN: linguistika.
21'tan: I. SARASOLA: gaurko literatura.

Irailaren 2-an. Igandea.

- Ikuska, Ipar Euskal Herrian barne.

Irailaren 3-an. Astelehena.

- 9'tan: L. MITXELENA: linguistika.
10'tan: G. BIDART: antropologia.
11'tan: J. M. SATRUSTEGI: antropologia.
21'tan: P. NARBATZ: historia.

Irailaren 4-an. Asteartea

1. SARASOLA: literatura.
10'tan: K. SANTAMARIA: matematika.
11'tan: G. ANTOLA: ekonomia.
21'tan: P. XARRITON: gogoetak.

Irailaren 5-an. Asteazkena

- 9'tan: J. LARRAMENDI: edergintza.
10'tan: J. M. SATRUSTEGI: antropologia.
11'tan: G. BIDART: antropologia.
21'tan: G. ANTOLA: ekonomia.

Irailaren 6-an. Osteguna.

- 9'tan: J. SAN MARTIN: edergintza.
10'tan: K. SANTAMARIA: matematika.
11'tan: M. MOURGIAIT: linguistika.
21'tan: P. ALTUNA: pedagogia.

Irailaren 7-an. Ostirala.

- 9'tan: C. HARLOUXET: informatika irakaskintza.
10'tan: J. AZURMENDI: gaurko ideologiak.
11'tan: Donosti-ko erakle talde bat: pedagogia.
21'tan: J. SAN MARTIN: edergintza.

Irailaren 8-an. Larunbata.

- 9'tan: R. GARATE.
10'tan: J. L. DAVANT.
11'tan: AGIRRE BALZATEGI: gogoetak.
arratsaldean: solas-ondo.

Arratsaldetan: Taldeko edo multzoko irakasle eta ikasle-
artean elgar hizketak izanen dira. Goizeko iraka saildik
segizten ahaliko dira ere.

Tokia: DONIBANE LOHITZUNE-N (Lapurdi). «Maurice
Ravel» Lizeo edo Ikastegian.

Egunak: Abuztuaren 29-rik, Irailaren 8 arte.

Prezioak: egunerotako eta loa: 20 franko jan aidi bakar-
ra: 10 franko. Unibersidade saria: 20 franko.

**Argitasun eta xehetasun gehiagoren ukaiteko, galdetu
zuzenbide hurretar:**

IKAS. 15, rue Port-Neuf. 64100 Bayonne. T. 256426.

JOSE RAMON ANDA, NAPARROA'KO ESCULTURE GAZTEA



José Ramón Anda, Artista. (Aida ARGAZKIA).

Sakana aldetik nembillera, Bakaikoa'n, eskultore gazte
bat bizi zala, jakin nuen. Euskal gaiak asko erabiltzen zitula
esan zidaten. Orrekin naikoa nuen eta mutil ori ezagutzeko
gogoa sortu zitzaidan.

Mutil au gurasoein Bakaikoa'n bizi da. Bere etxean
ezagutu nuen. Ez da nolankia mutilla; arpegia sakona,
begia zorrotza, gizon atsegia, gaztea oraindik 24 urte ditu;
1949 garrenean sortua. Txikitetik etxean asi zan lanean,
aita maixua izaki. Mutil onen aita, zurgindegi bat dauka.
Berez zurgina da. Lantegia, erosoa aita, zurgindegi bat dauka.
Berrege bide ondoan, erriaren bukaeran daukate. Aitonak
serreri bat zaukan, aita zurgindegi ta semea egitzeko
artista degu. Ona da jaitzea nua eta nola sortu zan. Aitak
kutxak, erreditzak eta euskal irudi asko egin ditu, lanean
asi zan ezkerotzik. Beste bi seme dauka berekin batean
lanean. Gauzak ongi egiten dituzte, garbiak, biaki, itxura
onekoak. Bezero edo kiente asko etortzen zaizkie; agindu
asko eskuratzen dituzte. Egurrari euskal amasa ematen oi-
tuak daude. Ementxe sortu ta aza da gure eskultore gaztea.
Ezan bezela, lan ortan aitarean ondoan asi da ikasten. Aitak,
iru semeak lan berdinean jarri zituan; irurak berekin batean,
gainera lanean. Danak langile onak, baiñan gaztea artista
aundia.

Emezortzi urtekin asmo aundi bat sortu zitzaión; Miguel
Angel en «pieta» egitea Bere asmo ori aurrera ateratze
arren, gabetan oso berando arte, lanean zebilen Urte bat
igaro ondorean amaitu zuan; alaxeko irudia egin ere. Migel
Angel'engatik gaia bakarrik artu zuan, beste guztia berea da
ez nolankia. Maria ez dago exerita. Zutik egin du,
lurretik bere semea jaso naian. Ikaragarriko indarra
dauka Amabirjin onek; bere semea berpiztu naian dabil.
Jesus berriz illa arkitzen degu ta bere gorputza ondo gogor-
tua. Illeak lurrera eroritzen zaizkioa; eta ederrak egin
ditu. Jesus'en buruan, lan aundi bat dago egiña. Irudi au
ikusten dunak esango du artista aundi baten lana dela.
Bizitasunaren aldetik ez dago zer esanik. Gainera sakontasun
aundi bat sortu erazi dio. Ikusten da, naiz 19 urteko gazte
baten lana izan, bere begia berexitasun aundikoa daukala



GOITIBERA. (Aida ARGAZKIA).

ZENBAT IRABAZTEN DUTE



Lerro aukerak irakurtzen di-
tuzten geienak langileak
dira. Danak ba dakite amar,
ababiedo amaiaurenbat mi-
lla peza irabazten dituztela.
Baña galdetu genezake na-
gusiak, kirozaleak, negozioan-
teak, profesionalak, au da
sendagile, abogadu, ingenie-
ro ta karrerako gizonak eta
gañera gobernuan goian dau-
denak eta artistak zenbat irabaz-
ten diren. Langileak baño
geiago irabazten dute n
auetatik artista ospetsu bat-
zuena bakarrik dakit eta esan
go ditzut.

Nik emen izendatuko diz-
kizueten izenordeko ospetsu
auk, irakurle geienak eza-
gutuko dituzue, BOB HOPE-
rekin asiko naiz. Gizon au
zinean Komiko bezela lanean
danok ikusi degu. Gaztetan
oso pobrea zan eta orain
ikaragarriko diruaketa ditu.
Gizon txiki lodi bat da. Gaz-
tetan gosea kentzeko bere
lenbiziko lana izparringi edo
periodikoki saltzea izan zan.
Ala asi eta orain Ipar-Ameri-
ketako aberatsenetakoa omen
da. Gutxienez eun eta berro-
gei eta amabost million
(155.000.000) dolar ba omen
dauka. Eta dolar bakoitzak
berrogei eta amazorgi edo
emezortzi peza ba ditu. Ate-
ra kontuak ia zenbat diru dan
ori dana.

Lenbiziko lanak jateko aña
ematen zion. Zinekin dirua
irabazten asi zan. Orain be-
rrogei urte batzuk dirala zi-
neekin eun milla dolar iraba-
zi zituan eta andik urte bat-
zuetara emezortzi dolarakin
lur batzuk erosi eta golf ju-
kua jarri zuan bertan. Andik
25 urtetara emezortzi millan
erosi zuana, millon bat as-
kofi zioten eta baita ere sai-
du. Diru orrekin, zineko lana
utzi gabe, lur berriak oso
merke erosi zituan. Lur oie-
tan gaur millon bat bizilagun,
edo habitante bizi omen dira
eta Bob Hope berak ere ez-
taki orlik zenbat diru artzen
duan urte barruan.

Bob Hopek los Angeles'en
Arizona'n, Puerto Rico'n, eta
beste toki askotan etxeak
erosi zituan. Bere lurrak
Oeste-ko pelikula egiteko
utzi ditu. Radio eta telebi-
sioaren jabe ere ba da. Tex-
as'en petroleoaren putzuak
ere ba ditu. Gauz dena oie-
kin eta zineekin egin du ain-
beste diru.

Tom Jones, Abeslari as-
ko dira diru irabazten dituz-
tenak eta oietako bat Tom
Jones da. Esaten da onek
urtean millon eta berreun mi-
la dolar irabazten dituala.

ELVIS PRESLEY. Baña
abeslari eta artista auen ar-
tean itzulketara aundiena eman
duan Elvis Presley da. Ka-
mionero bat zan eta lanik
etxeukan. Orain emezortzi ur-
te «rock and roll» abesten
asi zan eta pelikula, disko
abesti eta komertzioekin be-
rreun eta berrogei eta amar
(250.000.000) millon dolar
irabazi omen ditu. Oraindik
ogei ta emezortzi urte beste-
rik ez ditu.

Artista oso ezagun eta os-
petsuenak ikaragarriko diru-
aketa irabazten dituzte. Geie-
nak ez dute artearekin ain-
beste diru egin. Abesti eta
pelikula ematen dizkieten
irabaziak negoziotan sartzen
dituzte eta negozioko aundit-
zen diete beren diruketa.

Lengo egunean izparringi
edo periodikuetan ekartzen
ziguten berri au: Frank Si-
natra'i aste bateko lanaren-
gatik, gabeko klub batean
abestu edo kantatzeagatik,
millon erdi bat dolar ematen
zizkitela. Ori ba leiteke?
Bai, ori noizbela zortitza-
reaz ba leiteke. Zergatik zo-
ritzarrez? Egunero ogeta-
mar milla eme gosez litzen
dira. Nola, ba, gizon batek
aste batean irabazi leike ain-
beste diru? Jaungoikoaren
aurrean or eztago zuzenbi-
derik.

Artista auker negoziotan
dabilazten gizon geienak ba-
ño diru geiago irabazten
dute. Ford, Rockefeller, Ona-
sis eta petroliotan dabilaz-
ten beste batzuk, artista oiek
baño geiago irabazten dute.
Batez ere auen negozioko aie
nak baño zarragoak diralako.
Danak ere lo frankilo egingo
dute? Jaungoikoaren zuzen-
bideak beren denboran gau-
zak erabakiko ditu.

FELIPE ARANA